

ELAko Azterketa Bulegoak, Hego Euskal Herriko zerga arloaren egoerari buruzko txostena prestatzen du urtero. Honako dokumentu honetan, Zerga Arloari buruzko 2005eko Txostena aurkeztuko dugu. Oraingoan ere, zerga-bilketa oso bidegabea dela erakusten digute datuek, presio fiskalik handiena lan-errentek jasaten eta zeharkako zergek eragiten baitute.

Era berean, argi geratzen da Hego Euskal Herriko bilketaren maila (presio fiskal deritzoguna) Europar Batasuneko baxuena dela. Diferentzia hori, neurri handi batean, lanarenak ez diren errentek egiten duten iruzur fiskal itzelak eragiten du, baina legezko zerga-egitura ere aipatu behar da, ildo beretik.

Txosten honetan, aurreko ekitaldian sartu ez dugun alderdi berri bat aurkeztuko dugu: zerga arloaren azterketaren egiturari eutsiz, gizarte-babesaren eremuan zer gertatzen den ere azalduko dugu.

EAEko eta Nafarroako instituzioetako arduradun politikoek atsegin handiz baieztatu ohi dute instituzioon jardunari esker ongizate-maila altua lortu dugula. Txosten honetan Hego Euskal Herriko gizarte-babesaren gainean bildu ditugun datuek, aitzitik, gure gizarte gastua Europar Batasuneko txikienetakoa dela erakusten dute.

Gauza jakina da zerga arloaren eta gizarte-babesaren artean lotura estua dagoela. Ezinezkoa da Europar Batasuneko presio fiskalik txikiena eta gizarte-gastuaren mailarik altuena izan. Ez da ausazkoa presio fiskalaren mailarik baxuenak gizarte-babes urrireneko lekuetan egotea (Nafarroan eta EAEn, adibidez), eta alderantziz, ez da kasualitatea Suedia gizarte-gasturik eta presio fiskalik handienak dituen herrialdea izatea. Ongizateko estatua finantzatu egin behar da, eta gizarte-babesaren tamaina eta berori finantzatzen den modua eztabaida beraren bi atal dira: zer gizarte-eredu nahi dugun erabakitzeke eztabaidaren atalak, hain zuzen ere.

Gobernatzen gaituztenek ondo dakite zer nahi duten: zerga gutxi –batez ere langileriak ordainduak– eta gizarte-gastu murrizta. Hortaz, poz-pezik dabilta oraingo egoerarekin. Hala ere, jakin badakite herritar gehienek gizarte-babes oparagoa, elkartasun handiagoa eta gizarte-estaldura hobeak nahi dituztela. Horregatik,

instituzioek estali egiten dute egia, eta gizarte-politika edo iruzur fiskalaren aurkako borroka propagandaz ordezten saiatzen dira.

ELAk argi ikusten du politika publikoak aldatu egin behar direla, eta horretarako, gizartea sentikortzea, aldarrikapena eta mobilizazioa beste biderik ez dago. Agiri honen bidez, gizarte-eredua erabakitzeko garrantzitsuak diren alderdi batzuk hobeto ezagutzen lagundu nahi dugu, aldarrikapena eta mobilizazioa artikulatzeko oinarriak ezartzeko asmoz.

I. HEGO EUSKAL HERRIKO GIZARTE-BABESEKO GASTUA ETA EUROPAR BATASUNeko GASTUAREKIKO KONPARAZIOA

Gizarte Babesari buruzko Estatistika Integratuen Europar Sistemaren metodologiaren arabera gertatutako datuek Europar Batasuneko, EAEko eta Nafarroako gizarte-babesaren egoera erka-tzea ahalbidetzen dute. Era horretan, honako alderdi hauek aldera ditzakegu:

- Gizarte-babeseko gastuen multzora bideratzen den aberastasu-n ehunekoa.
- Biztanleko, zenbat euro gastatzen diren gizarte-babesean.

Azken datu homogeneoak 2003koak dira, Nafarroari buruzkoak izan ezik, kasu horretan dagoen azken informazioa 2001ekoa da eta.

1. Gizarte-babesera bideratzen den aberastasun ehunekoa


EAEn, BPGaren %19,2 zuzentzen da gizarte-babesera, eta Nafarroan, %17,5ekoa da portzentaje hori. Europar Batasuneko batez bestekoaren oso azpitik gaude gizarte-babeseko gastuari dagokionez, 15-EBn, batez beste, BPGaren %28,3 gastatzen baitute, hau da, EAEn baino 9,1 puntu gehiago eta Nafarroan baino 10,8 puntu gehiago.

Diferentzia eurotan adierazteko, esan dezakegu Europar Batasunak batez beste gizarte-babesean gastatzen duenera heltze-ko, Hego Euskal Herrian benetan gastatzen direnak baino 6.832,82 milioi euro gehiago zuzendu beharko lirakeela, urtero, gizarte-babesera: 5.233,90 milioi euro gehiago EAEn eta 1.598,92 gehiago Nafarroan.

Europar Batasunaren barruan, Suedia da gizarte-babesera baliabide gehien zuzentzen dituen herrialdea, BPGaren %33,5, hain zuzen ere, eta horren ostean Danimarka eta Frantzia daude, %30,9arekin, eta Alemania gero, %30,2arekin.

15-EBren eremuan, Irlandako gastua -%16,5ekoa- bakarrik gainditzen du Nafarroak eta EAEk gizarte-babesean gastatzen dutenak.

GIZARTE-BABESEKO GASTUA (BPG %).
EUOPAR BATASUNA, 2003



Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea

Baina, Europako azkenetakoak izateaz gain, Hego Euskal Herriko gizarte-babeseko gastuak beheranzko joera agertu du azken urteotan, BPGaren arabera neurtuta. Beraz, Europako batez bestekoarekiko jauzia, murriztu beharrean, handiagotu egin da. Ildo horretan, hauxe erakusten digute datuek:

- EAEn, gizarte-babeseko gastua BPGaren %0,7 murriztu da 1995etik 2003ra bitartean.
- Nafarroan, 1996 eta 2001 artean, BPGaren bi hamarren gutxiti da gizarte-babeseko gastua.

2. Gizarte-babesera biztanle bakoitzeko gastatzen den zenbatekoa


Gizarte bakoitzak gizarte-babesaren alde egiten duen ahalegina neurtzeko daturik esanguratsuen sortutako aberastasunetik xede horretara bideratzen den portzentajea da (aurreko atalean aztertu duguna). Baina goian aipatutako Estatistika Sistemaren metodologiak beste datu interesgarri batzuk ere jakiteko aukera ematen digu.

Euskal arduradun politikoei, batzuetan, gure lurraldean Europar Batasuneko batez bestekoa baino aberastasun handiagoa sortzen dela aipatu ohi dute gizarte-babesean gastatzen den BPG ehuneko urriaren arrazoitzat, Hego Euskal Herriko biztanleok europarrenaren antzeko kopurua gastatzen dugula sinestarazi nahian. Datuek erakusten diguten errealitatea, ordea, oso bestelakoa da.

Nafarroa eta EAE Europar Batasuneko azkenekoetakoak dira gizarte-babesera biztanleko zuzentzen den euro kopuruari dagokionez. EAEn, biztanleko, 4.536 euro gastatzen dira urtean xede horretan, eta Nafarroan, 3.835. Europar Batasuneko batez bestekoa, aldiz, 6.926koa da. Alegia:

- EAEn, urtean, Europako batez bestekoa baino 2.390 euro gutxiago gastatzen dira gizarte-babesean biztanleko.
- Nafarroan, Europan baino 3.091 euro gutxiago bideratzen dira gizarte-babesera, urtean, biztanleko.

GIZARTE-BABESEAN BIZTANLEKO GASTATZEN DEN
EURO KOPURUA. EUROPAR BATASUNA, 2003 (*)



Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea

(*) OHARRA: Nafarroako biztanleko zuzentzen den euro kopuruaren datua 2001eko datua oinarritzat hartu eta BPG nominalaren hazkundearen arabera 2003ra egokituz kalkulatu da.

II. HEGO EUSKAL HERRIKO ZERGA ARLOARI BURUZKO ONDORIOZTAPENAK

1. Europar batasuneko azkenak presio fiskalari dagokionez

Hurrengo taulan, Europako Batasuneko estatu kideetan 2004an izandako presio fiskala aztertuko dugu (Europa mailan daukagun azken informazioa 2004koa da), eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta Nafarroan zergak eta gizarte-kotizazioak ordaintzera zuzentzen den aberastasun ehunekoarekin alderatuko dugu.

Irlandak izan ezik, **15-EBko estatu guztiek dute EAEkoa eta Nafarroakoa baino presio fiskal handiagoa**, eta sailkapen horretan oso tarte handia dago presio handieneko estatuen –Suedia, Danimarka, Belgika eta Finlandia, besteak beste– eta Hego Euskal Herriaren artean (HEH).

15-EBko batez besteko presio fiskala Barne Produktu Gordinaren (BPG) %39,6koa izan zen 2004an. 25-EBko presio fiskala BPGaren %39,3koa izan zen; beraz, Europar Batasunean geroago sartu diren estatuek 15-EBko estatuetaoaren antzeko aberastasun ehunekoa bideratzen dute zergak eta kotizazioak ordaintzera.

Nafarroako presio fiskala BPGaren %32,1ekoa izan zen, hau da, 15-EBkoa baino **7,5 puntu txikiagoa**; hortaz, Nafarroan 2004an *15-EBn baino 1.043 milioi euro gutxiago bildu ziren*, sortutako aberastanari buruz. Era berean, EAEko presio fiskala BPGaren %31koa izan zen, 15-EBkoa baino **8,6 puntu urriagoa**, alegia. Horrek *4.586,4 milioi euroko aldea* adierazten du, BPG baliokideari dagokionez. Izan ere, Barne Produktu Gordinetik zergak eta kotizazioak ordaintzera 15-EBk zuzendutako portzentaje bera gastatzeko, benetan bildutakoak baino *5.629,5 milioi euro handiagoak* izan beharko zuketean *HEHko diru-sarrerek*.

Presio fiskala zerga motaren arabera aztertzean ikus daitekeen bezala, zuzeneko zergen presioa BPGaren %13,1ekoa izan zen 15-EBn, hots, Nafarroakoa baino 3,9 puntu handiagoa (Nafarroako zuzeneko zergen presio fiskala BPGaren %9,2koa izan zen) eta EAEkoa (BPGaren %8,9ko presioa) baino 4,2 puntu gorago. Horren arabera, argi geratzen da **HEHko eta 15-EBko presio fiskalen arteko diferentziarik handiena zuzeneko zergetan** dagoela.

15-EBn zeharkako zergak ordaintzera bideratutako aberastasun portzentajea %13,8koa izan zen, hau da, Nafarroan (zeharkako zergen presioa BPGaren %10,6koa izan zen) baino 3,2 puntu handiagoa eta EAEn (BPGaren %10,3ko presioa) baino 3,5 puntu gehiago.

Gizarte Segurantzarako ekarpenen presio fiskala BPGaren %12,8koa izan zen 15-EBn, hots, Nafarroakoa (BPGaren %12,2) baino 0,6 puntu gehiago eta EAEkoa (BPGaren %11,8) baino puntu bat handiagoa.

PRESIO FISKALA. EUROPAR BATASUNA, 2004 (*)

	GUZTIRA	ZEHARKAKOAK	ZUZENKOAK	GS EKARP.
Suedia	50,5	17,1	19,5	13,8
Danimarka	48,8	17,6	30,1	1,2
Belgika	45,2	13,6	17,5	14,1
Finlandia	44,3	14,3	18,1	11,9
Frantziako E.	43,4	15,7	11,6	16,3
Austria	42,6	14,8	13,4	14,4
Italia	40,6	14,3	14	12,3
Luxenburgo	40,1	14,7	14,1	11,3
25-EB	39,3	13,8	12,9	12,8
15-EB	39,6	13,8	13,1	12,8
Alemania	38,7	12	10,2	16,5
Herbehereak	37,8	13	10,8	14
Erresuma Batua	36	13,6	15,8	6,6
Grezia	35,1	14	8,9	12,1
Espainiako E.	34,6	12,2	10,7	12,2
Portugal	34,5	14,5		11,3
Nafarroa	32,1	10,6	9,2	12,2
EAE	31	10,3	8,9	11,8
Irlanda	30,2	13,2	12,4	4,6

Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Eurostat

(*) 1. OHARRA: Udal-zergek guztizkoan duten pisua txiki samarra den arren, HEHko udal-zergen bilketari buruzko informazioa 2003koa dela aipatu behar dugu, daukagun azkena horixe baita.

2. OHARRA: 2005eko ekitaldian BPGan egindako metodologia-aldaketaren ondorioz, Nafarroako presio fiskala pixka bat txikiagoa da, eta EAEkoa nabarmenki txikiagoa.

2. Zeharkako zergen pisu handiagoa

Esan dugunez, HEHko presio fiskalak Europarekiko agertzen duen defizita zuzeneko zergetan datza. Horren arrazoietakoa bat Hego Euskal Herrian **zeharkako zergek, zuzeneko zergen aldean**, hitzartutako zergen bilketan duten pisu handiagoa da.

Egitate **erregresiboa** da hori; izan ere:

- *Zeharkako* zergek kontsumoaren arabera zergapetzen dute eta, beraz, berdina dira biztanle guztientzat.
- *Zuzeneko* zergak biztanleen errentaren arabera dira, eta horregatik, zeharkakoak baino bidezkoagoak.

3. Zuzeneko zergak: lan-errenten pisu itzela

Zuzeneko zergen azterketan sartuz, eta hauen zioz bildutako dirua errentaren jatorriaren arabera banatuz gero, hauxe ikusiko dugu:

HEHn, **lanaren PFEZak** osatzen du **zuzeneko zergen zatirik handiena**, horien %66,6 baitagokio.

Bestalde, enpresa-, lanbide- eta kapital-errentei hitzartutako zuzeneko zerga-bilketaren %35,6 dagokie.

4. Aitortutako lan-errentak, jarduera ekonomikoen errentak baino askoz handiagoak

Zerga zuzenei buruzko beste datu interesgarri bat **batez beste aitortutako lan-errentak errenta ekonomikoak (enpresa- eta lanbide-errentak) baino askoz mardulagoak direla** da. Zehazki, 2002ko ekitaldian, HEHn batez beste aitortutako lan-errenta 18.134 eurokoa izan zen, errenta ekonomikoak jasotzen dituztenek batez beste aitortutako errenta (10.619,6 eurokoa) baino 7.514,5 euro handiagoa, hain zuzen ere.

BATEZ BESTE AITORTUTAKO ERRENTAK. HEGO EUSKAL HERRIA, 2002

LAN-ERRENTAK	18.134,1
EKONOMIKOAK	10.619,6
ALDEA	7.514,5

Iturriak: Zerga Koordinazioarako Organoa, Nafarroako Gobernua

EAEn zein Nafarroan batez beste aitortutako errentei buruzko azterketa xehatuek erakusten dutenez, bi errenta moten arteko **jauzia**, murriztu beharrean, **gero eta handiagoa da urteak iragan ahala**.

5. Iruzur fiskalarekiko permitibitatea

Aurreko atalean aztertutakoa iruzur fiskalaren ondorioa da, edo zehatzago esateko, iruzur fiskalaren aurkako borroka eskasarena, atal honetan zehar egiaztatuko dugun bezala. Alderdi hori aztertzeko, Foru Aldundiek biltzen dituzten hitzartutako zergei erreparatuko diegu azterlan honen gainerakoan.

Gai horri buruzko informazioa oso urria da. Bereziki deigarria da **Arabako Foru Aldundiaren** kasua, zerga arloaren gaineko **dokumenturik ez** prestatzeaz gain, hainbatetan eskatu zaion **informazioa eman ere ez baitu egiten**.

Hurrengo taulak Gipuzkoan eta Bizkaian 1998tik aurrera ikuskatu diren zergadunen kopuruaren bilakaera erakusten du. **Gipuzkoaren** kasuan, kopuru horrek jaitsiera nabaria izan du; izan ere, 2004an, 355 zergadunen aitortenak baino ez ziren ikuskatu, 1998an (507 izan ziren ikuskatutakoak) baino 152 gutxiago, hain zuzen ere. **Bizkaian**, 2003an, 683 zergadunen aitortenak ikuskatu ziren, 1998an bezalatsu (636 izan ziren ikuskatutakoak), baina 2001ean (873 zergadun ikuskatu ziren) baino 190 gutxiago.

IKUSKATUTAKO ZERGADUNEN KOPURUA. GIPUZKOA ETA BIZKAIA, 1998-2004

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Gipuzkoa	507	576	479	528	390	388	355
Bizkaia	636	858	858	873	752	683	

Iturriak: Gipuzkoako eta Bizkaiko Ogasunak

Nafarroari buruz, aurrekontu-proiektuan ageri den informazioa besterik ez daukagu, eta ekitaldi bakoitzerako zehaztutako helburuak bakarrik aipatzen dituenaz, ez du zertan bat etorri benetan egiten denarekin.

Ikuskapenatarako gastua BPGaren %0,01en inguruan mantendu da 2003tik 2006ra bitartean. Horrek agerian uzten du Nafarroako Gobernuak iruzur fiskala desagerrarazteko duen interes hutsala.

Ikuskapen-lanetan diharduten langileak 33 dira 2006an. Ekitaldi bakoitzean 2 pertsona gehitu zaizkio kopuru horri, baina, hala ere, ikuskatu beharreko zergadunen kopurua, 350, bere horretan utzi da aipatutako aldi osoan.

**ZERGADUNEN IKUSKAPENEI BURUZKO INFORMAZIOA.
NAFARROA, 2003-2006**

	2003	2004	2005	2006
IKUSKAPEN-GTU. / BPG	%0,01	%0,02	%0,01	%0,01
GIZA BALIABIDEAK	31	33	35	33
ZERGADUNEN KP.	350	350	350	350

Iturria: Nafarroako Gobernua

III. EAeko ZERGA ARLOA. 2005 ETA BILAKAERA

1. *Hitzartutako zergen bilketa. EAE, 2005*

2005ean, EAeko Foru Aldundiek **11.265,5 milioi euro** bildu zituzten hitzartutako zergen zioz, hau da, 2004an *baino %13,7 gehiago*.

Hona hemen **zerga garrantzitsuenak**, bilketan duten pisuaren arabera ordenaturik:

- *BEZak*, 4.186,3 milioi euroko sarrerekin, bilketaren %37,2 eragin zuen.
- *PFEZaren zioz*, diru-sarreraren %30,2 (3.403,7 milioi) bildu ziren.
- *Sozietateen gaineko Zergak*, 1.440,4 milioiko bilketaz, hitzartutako sarreraren %12,8 eragin zuen.
- *Zerga Berezien* zenbatekoa 1.288,2 milioi eurokoa izan zen, guztizkoaren %11,4, alegia.

HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA, ZERGAZ ZERGA, ETA EGITURA (MILIOI €, GUZTIZKOAREN %). EAE, 2005

	2005	EGITURA
BEZ	4.186,3	37,2
PFEZ OSOA	3.403,7	30,2
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	1.440,4	12,8
ZERGA BEREZIAK	1.288,2	11,4
GAINERAKOAK	946,9	8,4
ZERGA, GUZTIRA	11.265,5	100

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Zerga-bilketa **zuzeneko edo zeharkako izaera** bereiziz aztertuz gero, honako hau ikus dezakegu:

- *Zeharkako zergen zioz*, 6.083,9 milioi euro bildu ziren, hau da, guztizkoaren %54.
- *Zuzeneko zergek* pisu txikiagoa izan zuten, guztizkoaren %45,1 izan ziren eta (5.076,2 milioi euro bildu ziren).

**HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA,
ZERGA MOTAREN ARABERA, ETA EGITURA
(MILIOI €, GUZTIZKOAREN %). EAE, 2005**

	2005	EGITURA
ZEHARKAKO ZERGA	6.083,9	54,0
ZUZENEKO ZERGA	5.076,2	45,1
GAINERAKOAK	105,3	0,9
ZERGA, GUZTIRA	11.265,5	100

Iturria: Eusko Jaurlaritzza

Zuzeneko zergen bilketa aztertzean ikus dezakegunez:

- Lanaren PFEZaren zioz 3.455,1 milioi euro bildu ziren, zuzeneko zerga guztien %68,1, alegia.
- Enpresaburuuen, profesionalen eta kapitalaren errentek 1.784,6 milioi euroko bilketa eragin zuten, hots, zuzeneko zergen bilketa osoaren %35,2. Azken errenta mota horren barruan, hauxe ikusten dugu:
 - a) *Sozietateen gaineko Zergaren bidez*, 1.440,4 milioi euro bildu ziren, hau da, zuzeneko zergen bilketaren %28,4.
 - b) *Enpresaburuuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren zioz* 344,2 milioi euro bildu ziren, zuzeneko sarreren %6,8, alegia.

**HITZARTUTAKO ZUZENEKO ZERGEN BILKETA,
ZERGAZ ZERGA, ETA EGITURA
(MILIOI € ETA GUZTIZKOAREN %). EAE, 2005**

	2005	EGITURA
LANAREN PFEZ	3.455,1	68,1
- SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	1.440,4	28,4
- ENPR., PROF. ETA KAP. PFEZ	344,2	6,8
ENPR., PROF. ETA KAP. ERRENTAK (*)	1.784,6	35,2
GAINERAKOAK	-163,5	-3,2
ZUZENEKO ZERGA, GUZTIRA	5.076,2	100

Iturria: Eusko Jaurlaritzza

Ondorioztapena: EAEko bilketaren zati handiena zeharkako zergak eragindakoa da. Zuzeneko zergei dagokienez, lanaren PFEZari bilketaren ia %70 dagokio.

2. Hitzartutako zergen presio fiskala. EAE, 1998-2005

Hitzartutako zergen presio fiskala **BPGaren %19,6koa** izan zen 2005ean; hots: EAEko ekonomian sortutako 100 euroko 19,6 bideratu ziren zerga horien bilketara.


Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, 2005eko ekitaldian presioa askotxo areagotu zen, **BPGaren puntu bat hazi baitzen 2004koaren gainetik, eta BPGaren 0,8 puntu 1998koarekiko.**

Printzipioz **onuragarritzat** har litekeen **datu** hori **ez da** berez **hain pozgarria**, zergatik gertatzen den kontuan hartuta:

- *Zeharkako zergen presio fiskala BPGaren 1,1 puntu gehitu da 1998koarekin erkatuta.*
- *Zuzeneko zergen presioa BPGaren 0,3 puntu murriztu da 1998tik hona. Horrek esan nahi du 1998ko ekitaldiarekin alderatuta 132,7 milioi euro gutxiago bildu direla zerga mota horren zioz.*

Hortaz, **presio fiskalaren hazkundera erregresiboa** da, zeharkako zergen pisua handitzearen ondorioz eta zuzeneko zergak murriztuz jazo delako.

HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA (BPG %).
EAE, 1998-2005




Iturriak: Eusko Jaurlaritza eta Eustat

Hurrengo grafikoan, **zuzeneko zerga** bakoitzaren **presio fiskalak** 1998tik aurrera izan duen **bilakaera** ikus daiteke. Hona hemen:

- Aztertutako aldian, bere pisua BPGaren 0,5 puntu gutxitu den arren, *lanaren PFEZa* da, oraindik ere, zuzeneko zerga nagusia, BPGaren %6ko presioarekin.
 - *Enpresa-, lanbide- eta kapital-errenten* gaineko presio fiskala BPGaren %3,1ekoa izan da, hau da, 1998koaren berdintsua (BPGaren 0,1 puntu hazi da). Errenta horiek lanaren PFEZaren presioaren erdia besterik ez dute jasaten. Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten barruan, hauxe ageri da:
 - a) *Sozietateen gaineko Zergak* BPGaren %3,1eko presioa eragin du 2005ean, hots, aztertutako aldiaren hasieran baino 0,4 BPG puntu gehiago. Gehikuntza txikia da hori, azken urteetako hazkunde ekonomiko handiaren ondoan eta, batez ere, enpresaburuen mozkin itzelekin alderatuz gero, mozkinok markak hausten segitzen dute eta.
 - b) *Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren* presio fiskala, ordea, BPGaren 0,3 puntu urritu da 1998tik hona, BPGaren %0,6ra heldu arte. Horrek argi uzten du enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZan egiten den iruzur fiskal handia.
-

HITZARTUTAKO ZUZENEKO ZERGEN PRESIO FISKALA
(BPG %). EAE, 1998-2005



Iturriak: Eusko Jaurlaritza eta Eustat

Ondorioztapena: 1998tik 2005era bitarteko aldira, presio fiskala hazi egin da, baina hazkunde hori zeharkako zergen presioa handitu izanek eragin du, zuzeneko zergen presioa murriztu egin delarik.

3. Batez beste aitortutako errenta. EAE, 1999-2002

Kolektibo bakoitzak PFEZan batez beste aitortzen duen errentak eta horren bilakaerak ere agerian uzten dute iruzur fiskalaren tamaina, eta horregatik, interesgarri deritzogu horiek aztertzeari.

2002an (daukagun informazioa ekitaldi horretakoa baita), **batez beste aitortutako lan-errenta** 17.684,4 eurokoa izan zen, **aitortutako enpresa- eta lanbide-errentak** (11.433,8 euro aitortu ziren) **baino 6.250,6 euro handiagoa**, hain zuzen ere.

2002ko ekitaldia ez da salbuespen; are gehiago: bi errenta moten arteko aldea gero eta handiagoa da urtez urte. 1999 eta 2002 artean, batez besteko lan-errenta 2.324 euro hazi zelarik, errenta ekonomikoak 319 euro baino ez ziren handitu; hortaz, **bien arteko diferentzia 2.005 euro areagotu zen 1999tik 2002ra**.

Datu horiek argi erakusten dute nomina baten menpe ez daudenek, alegia, enpresa- eta lanbide-errentak jasotzen dituztenek, egi-ten duten **iruzur fiskal** itzela.

KOLEKTIBO BAKOITZAK PFEZan BATEZ BESTE AITORTUTAKO ERRENTA. EAE, 1999-2002

URTEA	LAN-ERRENTAK	EKONOMIKOAK	ALDEA
1999	15.360,5	11.114,8	4.245,7
2000	16.448,2	10.937,1	5.511,0
2001	17.114,9	11.114,4	6.000,5
2002	17.684,4	11.433,8	6.250,6
1999-2002	2.323,9	319,0	2.004,9

Iturria: Zerga Koordinaziorako Organoa

IV. ZERGA ARLOA NAFARROAN. 2005 ETA BILAKAERA

1. *Hitzartutako zergen bilketa. Nafarroa, 2005*

Nafarroako ogasunak 2.920,3 milioi euro bildu zituen 2005ean, hau da, 2004an baino %11,3 gehiago.

Hona hemen foru-ogasunaren diru-kutxarako bilketarik handiena eragin zuten zergak:

- *BEZak*, 983,9 milioi euroekin, bilketaren %33,7 eragin zuen.
- *PFEZaren* bidez, 865,8 milioi euro bildu ziren, bilketa osoaren %29,6, alegia.
- *Zerga Berezien* bitartez, 405 milioi euro bildu ziren, hots, bilketaren %13,9.
- *Diru-sarreraren* %13,4 *Sozietateen gaineko Zerga* zela medio bildu zen, 390,9 milioi euroko bilketa eragin zuen eta.

HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA, ZERGAZ ZERGA, ETA EGITURA (MILIOI €, GUZTIZKOAREN %). NAFARROA, 2005

	2005	EGITURA
BEZa	983,9	33,7
PFEZ OSOA	865,8	29,6
ZERGA BEREZIAK	405,0	13,9
SOZIETATE-ZERGA	390,9	13,4
BESTE BATZUK	274,6	9,4
ZERGAZ, GUZTIRA	2.920,3	100

Iturria: Nafarroako Gobernua

2005eko sarrerak aztertzean **zuzeneko eta zeharkako zergak** bereziz gero, hauxe aurkitzen dugu:

- *Zeharkako* sarrerak, 1.561 milioi eurokoak, guztizkoaren %53,5 izan ziren.
- *Zuzeneko* zergen bidez, 1.330 milioi euro bildu ziren, hots, guztizkoaren %45,5.

**HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA,
ZERGA MOTAREN ARABERA, ETA EGITURA
(MILIOI €, GUZTIZKOAREN %). NAFARROA, 2005**

	2005	EGITURA
ZEHARKAKO ZERGAK	1.561	53,5
ZUZENEKO ZERGAK	1.330	45,5
GAINERAKOAK	29,3	1
ZERGAK, GUZTIRA	2.920,3	100

Iturria: Nafarroako Gobernua

Zuzeneko zergak aztertzean, hauxe ikus dezakegu:

- Zuzeneko bilketaren %60,9 lanaren PFEZak eragin zuen, 809,7 milioi euroko sarrerekin.
- Zuzeneko sarreraren %37,2, hau da, 495,2 milioi euro, *enpresa-, lanbide- eta kapital-errentetatik* etorri zen. Horien barruan:
 - a) *Sozietateen gaineko Zerga zela* medio, 390,9 milioi euro bildu ziren, zuzeneko sarreraren %29,4, alegia.
 - b) Zuzeneko bilketaren %7,8 *enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZak* eragin zuen, horren bitartez 104,2 milioi euro bildu zirelarik.

**HITZARTUTAKO ZUZENEKO ZERGEN BILKETA,
ZERGAZ ZERGA, ETA EGITURA
(MILIOI € ETA GUZTIZKOAREN %). NAFARROA, 2005**

	2005	EGITURA
LANAREN PFEZa	809,7	60,9
- SOZIETATE-ZERGA	390,9	29,4
- ENPR., PROF., KAP. PFEZa	104,2	7,8
ENPR., PROF., KAP. ERRENTAK (*)	495,2	37,2
BESTE BATZUK	25,2	1,9
ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA	1.330	100

Iturria: Nafarroako Gobernua

Nafarroako bilketari buruzko atal hau amaitzeko, bertan zeharkako zergek askoz pisu handiagoa dutela esan dezakegu. Zuzeneko zergei dagokienez, bilketaren %60 baino gehiago lanaren PFEZak eragiten du.

2. Hitzartutako zergen presio fiskala. Nafarroa, 1998-2005

Nafarroan, hitzartutako zergek eragindako presio fiskala **BPGaren %19,7koa** izan zen 2005ean; beraz, ekitaldi horretan ekonomian sortutako 100 euroko 19,7 zuzendu ziren hitzartutako zergak ordaintzera.


Hurrengo grafikoak hitzartutako zergen presio fiskalak izan duen **bilakaera** erakusten du, bai eta **zuzeneko eta zeharkako** zergen bilakaera ere:

- Hitzartutako *zeharkako* zergen presio fiskala 1998an BPGaren %11,5ekoa izatetik 2005ean BPGaren %10,5ekoa izatera igaro da.
- *Zuzeneko* zergen presioa 1998ko BPGaren %8,5etik 2005eko BPGaren %9ra hazi da.

Bilakaera progresiboa izan da, errentaren arabera zergapetzen duten zergen pisua areagotu egin baita, kontsumoaren arabera zergapetzen dutenena murriztu egin delarik.

Dena den, **presio fiskala urritu** egin da. Zehazki esateko, 1998an BPGaren %20,3koa izatetik 2005ean BPGaren %19,7koa izatera igaro da, BPGaren 0,6 puntuko jaitsiera izanda. Horrek esan nahi du 2005ean 1998ko presioari eutsi balitzaio, **bildutakoak baino 78 milioi euro handiagoak izango zirela diru-sarrerak.**

HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA (BPG %).
NAFARROA, 1998-2005




Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Estadistika Erakundea

(*) Oharra: 1998ko eta 1999ko BPGari buruzko informazioa 2000ko ekitalditik aurrerako datuetarako erabiltzen den metodologia berrian oinarrituta Nafarroako Estadistika Erakundeak egindako estimazioa da.

Zuzeneko zergen presio fiskalak (guztizkoak eta zerga bakoitzarenak) izan duen bilakaera aztertzean, hauxe ikus daiteke:

- *Lanaren PFEZaren presioa* BPGaren 0,5 puntu hazi da 1998 eta 2005 artean, BPGaren %5etik %5,5era igaro baita. Hortaz, lan-errentek 1998an baino 69,7 milioi euroko presio fiskal handiagoa jasan dute.
- *Enpresa-, lanbide- eta kapital-errentek* 1998ko presio bera izan dute 2005ean (BPGaren %3,3koa). Errenta horien barruan:
 - a) *Sozietateen gaineko Zergaren presioa* BPGaren 1998ko %2,5etik 2005eko %2,6ra handitu da.
 - b) *Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZak* 1998an BPGaren %0,9ko presioa jasan ondoren, BPGaren 0,2 puntu murriztu da presioa, 2005ean BPGaren %0,7koa izan da eta. Enpresa-, lanbide- eta kapital-errentek jasan beharreko presioan izan den urritzea enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZa gutxitzeak eragin duela erakusten du horrek.

HITZARTUTAKO ZUZENEKO ZERGEN PRESIO FISKALA (BPG %).
NAFARROA, 1998-2005



Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Estatistika Erakundea

(*) Oharra: 1998ko eta 1999ko BPGari buruzko informazioa 2000ko ekitalditik aurrerako datuetarako erabiltzen den metodologia berria oinarrituta Nafarroako Estatistika Erakundeak egindako estimazioa da.

Ondorioztapena: Nafarroako presio fiskala BPGaren 0,8 puntu jaitsi da 1998tik 2005era bitarte. Horrek esan nahi du, sortutako aberastasunean oinarrituta, bildu behar zirenak baino 78 milioi euro gutxiagoko sarrerak egon direla. Zuzeneko zergen presio fiskala handitu egin da, baina lanaren PFEZaren presioa handitu izanak eragin du hori, enpresa-, lanbide- eta kapital-errenten presioa urritu egin baita.

3. Batez beste aitortutako errenta. Nafarroa, 2001-2004

Lan-errentak jasotzen dituztenek batez beste aitortutako errenta 21.100 eurokoa izan zen 2004an, errenta **profesionalak** aitortu zituztenek (10.124,1 euroko diru-sarrerak) baino **10.975 euro gehiago** eta **enpresa-errentak** aitortu zituztenek (8.514 euroko diru-sarrerak izan ziren aitortutakoak) baino **12.585 euro handiagoa**. Beraz, aitortutako lan-errentak nominaren menpe ez dauden diru-sarrerak jaso zituztenek aitortutako bikoitza izan ziren

Errenta mota bakoitzak 2001 eta 2004 artean izan duten bilakera aztertzean ikusten denez, aitortutako lan-errentak 2.395 euro hazi dira aldi horretan, lanbide-errentak 304 euro murriztu eta enpresa-errentak 140 euro bakarrik gehitu direlarik. Lan-errentak eta errenta ekonomikoak aitortzen dituztenen arteko diferentzia hazi egiten da urtez urte, eta horren ondorioz, aitortutako lan-errentaren eta **lanbide-errentaren arteko jauzia 2.699,8 euro handiagoa da orain, eta enpresa-errentarekikoa 2.255 euro handiagoa.**

KOLEKTIBO BAKOITZAK PFEZan BATEZ BESTE AITORTUTAKO ERRENTA. NAFARROA, 2001-2004

URTEA	LANA	PROFESIONALAK	ENPRESABURUAK
2001	18.704,5	10.427,9	8.374,0
2002	19.221,4	10.545,1	8.217,2
2003	20.309,3	10.831,5	8.464,3
2004	21.100,5	10.124,1	8.514,3
2001-2004	2.396,01	-303,81	140,33

Iturria: Nafarroako Gobernua

